

ISTRIPUAK. Erreniegakoaz gain, beste lau auto istripu izan ziren atzo Euskal Herrian: hiru hildako, zortzi zauritu

Hiru lagun hil dira Erreniega gainean, bi autok aurrez aurre jo ondoren

Hamabost hildako izan dira astebetean Euskal Herrian, horietako zazpi Nafarroan herenegungo eta atzoko istripuetan

Erredakzioa | IRUÑEA

Erreniega (Nafarroa) gaineko errepidean atzo arratsaldean gertaturiko istripu batean, hiru lagun hil eta beste hiru zauritu ziren, bi autok elkar jo eta gero.

Istripua 13:35ean izan zen, Iruñetik Logroñora doan N-111 errepideko 14,6 kilometroan. Bertan, bi autok elkar jo zuten aurrez aurre: LO-6532-K matrikula zuen Opel Kadett bat, eta NA-0870-AK matrikula zuen Seat Toledo bat. Lehena Iruñerako bidean zihoan, eta bigarrena, Lizarrarakoan.

Kolpearen eraginez hiru lagun hil ziren, Opel Kadetteko

gidari eta bidaiari bakarra lehena, eta Seat Toledoko gidaria eta bidaiaria beste biak: Jose Martinez de Laguna Martinez de Pinilla, 56 urtekoa, Vianakoa; Salvador Mikelarena Zaratea, 51 urtekoa, sortzez Legasakoa baina Donostiako bizilaguna, eta Agustina Mendia Lardizabal, 91 urtekoa, Hondarribikoa.

Seat Toledon zihoazen beste hiru bidaiariak zauriak izan zituzten: Karmele Laurenzena Manjarres, 50 urtekoa, Donostiakoa, gidariaren emaztea; eta Nerea eta Gaizka Mikelarena Laurenzena seme-alabak, 10 eta 11 urtekoak. Osasun zerbi-

tzuetatik jakinarazi zutenez, Nerea Mikelarena da hiruretan larriena. Nafarroako ospitaleko Zainketa Intentsiboko Unitatean zegoen. Karmele Laurenzena bere ama ospitale berean zegoen. Azkenik, Gaizka Mikelarena Bideko ama ospitalean sartu zuten. Antza denez, bere zauriak ez dira larriak eta gaur arte izanen dute behaketan.

Hamabost hildako astebetean

Atzoko hiru hildakoekin, hamabost dira azken astean Euskal Herriko errepideetan bizia galdu dutenak. Iragan asteko larunbatean, esaterako, lagun bana hil zen Idiazabal



(Gipuzkoa) eta Aranguren (Nafarroa).

Igande arratsaldean, Arabako Zuian, sei lagun hil ziren hainbat kotxe elkar jo ostean, ezbehar larri batean. Azken hilak Nafarroan izan dira. Ostira-lean lau lagun hil ziren Puñun, eta atzo beste hiru Erreniegan.

Beste bost zauritu izan ziren atzo, lau istriputan

Nafarroan gertatutakoaz landara, beste lau istripu ere izan ziren atzo Euskal Herrian, hiru Bizkaian eta beste bat Gipuzkoan.

Erandion, bestalde, N-637 errepidean, noranzko bera zaramaten bi autok talka egin zuten, eta bi zauritu izan ziren: S. B. J. 58 urteko emakumea, eta J. M. C. 37 urteko gizona. Bestetik, Mungiako Santiago etorbidean auto bat bidetik atera zen. P. A. A. 44 urteko gidaria zauritu zen gertatutako istripuan. Barakaldon, A-8 autobidean, motor bat bidetik atera zen. Zauriak izan zituen C. R. G. 31 urteko gidariak. Azkenik, bi autok elkar jo zuten Beasainen, eta 36 urteko ML.L.N. zauritu zen.

NAFARROAKO DATUAK

Istripuek behera egin zuten iaz

Azken bi egunetan Nafarroan istripu lazgarriak izan badira ere, antza denez, Nafarroako errepideen arriskugarritasun indizea %51 jaitsi zen 2001 urtean, nahiz eta trafikoaren intentsitateak gora egin zuen.

Nafarroako Gobernuak Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuak iazko herrilaren memoria argitaratu zuen ostegunean. Txosteneko trafiko sailean bildu dutenez, 2001. urtean, Nafarroako errepide sareko arriskugarritasun indizea %51 jaitsi zen, eta hilkortasun indizea %37.

Txostenaren arabera, istripuen kopuruak beherantz joera du. Iaz, 86 lagun hil ziren; 99, 2000. urtean; eta 98, 1999. urtean. Iaz, gainera, biktimak izan zituzten istripuen %70 errepide nagusi, autobia eta autobideetan gertatu ziren.

Bestalde, txostenak adierazten du iaz trafikoaren intentsitateak gora egin zuela; %4 gehiago errepideetan, eta %8 gehiago autobia eta autobideetan.



LANDER F. ARROIADE / ARGAZKI PRESS

Herenegun Puñun izandako istripuko autoa kiskalita.

Bartzelonakoak ziren Puñun kiskalita zendu ziren familia bereko lau kideak

Erredakzioa | IRUÑEA

Ostiralean Puñun (Nafarroa) kiskalita hil ziren lau lagunak, familia berekoak denak, Bartzelonakoak ziren, eta Donostiara zihoazen, ezkontza batera.

Istripuan, autoko gidaria eta atzeko eserlekuan zeuden hirurak hil ziren: Virgilio Martin Rodríguez, 52 urtekoa; haren emazte Avelina Sastre Hernan-

dez, 54 urtekoa; aurrekoen alaba Maria del Mar Martin Sastre, 26 urtekoa; eta haren mutil-lagun Pedro G. E.. Bartzelonakoak ziren denak.

Gidariaren ondoko eserlekuan zihoan Ignacio Martin Sastre, 22 urtekoa, onik atera zen istriputik. Nafarroako ospitalera eraman zuten zauri arinak zituelako, baina atzo bertan hartzekoa zen senda-agiria.

Istripua ostiraleko bederatziak laurden gutxi aldera gertatu zen, A-15 autobideko 57 kilometroan, Puñu inguruan. Oraindik argitu ez diren arrazoiengatik, B-8479-NW matrikuladun kotxea bidetik atera, jauzi egin, eta beheko errepidera erori zen, El Maño jatetxearen ondora.

Hainbat leherketa izan ziren eta suak berehala hartu zuen

autoa. Hori gertatu baino lehen, ordea, Ignacio Martin Sastre gaztea kanpora ateratzea lortu zuen. Beste laurak ezin izan zuten atera eta segituan hil ziren, auto barruan kiskalita.

Jatetxetik hurbildu ziren pertsonak ezin izan zuten deus ere egin. Kamioilari bat itzalgailu batekin saiatu zen sutea itzaltzen, baina ez zuen lortu. Ignacio Martin Sastrek, biziki aztoratuta, han bildutakoei kontatu zenez aita izan zen gerrikoa askatu ziona; horri esker lortu zuen autotik ateratzea.